

BASOAN GALDUTA

Bazen behin, neskatxa bat Biki izenekoa. Biki, Euskal Herrikoa zen baina Suitzara ikastera joan zen eta dagoeneko 10 urte pasa ditu Suitzan bizitzen. Biki, oso jatorra, alaia, maitakorra eta lasaia zen baina Suitzara joan zenetik bere izaera asko aldatu zen, Euskal Herrian, lagun asko zituen baina Suitzan oso bakartia zen, ez zitzaizkion gustatzen lagunak egitea eta gonbidapen gehienak ukatu egiten zituen.

Biki, ez zen oso altua, baxua ere ez, ile luzea marroia eta lisoa zuen, begi marroiak zituen eta sudur luzea, seguruenik gezur asko esango zituelako.

Bikik, goizeko seiretan trena zuen, Euskal Herrira etorri behar zelako bere familia bisitatzerako. Irrikaz zoratzen zegoen bere familia ikusteko baina oso urduri ere bai, bere familia 10 urte eta gero berriz ikusi zuen eta, lehenagoko lagunak, nahiz eta Suitzakoak eduki ez arren.

Goizeko bostak ziren eta Biki, maleta prestatuta, tren geltokira abiatu zen. Seirak laurden gutxietan, trenera igo, eta beste pertsonak sartzen ziren bitartean, bagoi batetik beste bagoi batera pasatuz, jende gutxien zegoen bagoia aukeratu zuen. Bagoi bakarra zegoen jenderik gabe, bagoi bat baino, komun bat zen baina bakarrik egoteko edozer gauza egingo zuen. Bikik, lo piska bat egin zuen baina bat-batean zarata batek esnatu zuen.

- Zer izan da hori? -esan zuen Bikik. Bikik entzun zuena, trenaren soinua izan zen.
- Txu-txu! Txuku-txuku txu-txu! -trena, geldialdi baten ondoren bazihoan aurrera.

Biki, komunetik irten zen ikustera zer gertatzen ari zen baina espero zuen ezer ez zuen ikusi. Komunera bueltan zihoanean, beste ezezagun bat sartu zen Bikiren aurretik eta Biki kanpoan geratu zen. Bat-batean, neska bat agertu zen, eta hitz egiten hasi zen.

- Kaixo! Zelan deitzen zara? Ni, Lide naiz. -Bikik, ez zion begirada bat bera ere egin eta Lide, momentu hartan, konturatu zen ez zela pertsona egoki batekin hizketan ari.

Bikik, poliki-poliki begiak itxi eta lo hartu zuen. Lide berriz, ondokoarekin berriketan aritu zen ondorengo bidai osoan.

Trenaren soinua entzuten zen bitartean, zarata batek, Biki esnatu zuen.

- Baina, zer izan da hori? -esan zuen Bikik.
- Lasai, trenaren zarata bat izan da, zahartuta dago eta. -esan zuen Lidek.

Baina zarata hori berriz ere entzun zen, eta hirugarren aldiz ere bai. Zarata horiek, behin eta berriz entzuten ziren, eta geroz eta zarata gehiago ateratzen zuten. Biki, Lide eta gainontzeko pertsonak, arduratzen hasi ziren. Trena, mugimendu arraroak egiten hasi zen eta bagoi hartan zeuden pertsonak bagoiz aldatu ziren. Treneko arduradunak, zaratak egiten zuen bagoia, soltatu egin zuen eta poliki-poliki bagoi hori gelditu egin zen trena martxan zihoan

bitartean.

Bagoia gelditzen zen bitartean, inor ez zen konturatu Biki eta Lide bagoi barruan zeudela eta trena bagoitik asko urrundu zen. Lide, oihuka hasi zen trena beste puntako mendi batean ikusten zuelako eta uste zuen treneko pertsonak entzungo zutela baina bere pentsamenduak alferrikakoak izan ziren. Inork ez zuen entzun Bikik izan ezik, edo hori uste zuten. Bat-batean, lehoi bat agertu zen ondoko zuhaitzean.

- A!!! -oihu egin zuen Bikik. Lide eta Biki korrika hasi ziren inoiz baino azkarrago.

Momentu hartan, lehoiak hagin-zorrotzak atera zituen eta bere azazkal luzeekin Liden bizkarra atximurkatu behar zuenean, harri bat, lehoiaren buruan agertu zen,

- Bete-betean asmatu dut. -esan zuen basoan zegoen gizon batek.
- Barkatu, nor zara? Zergatik zaude basoan? -esan zuen Lidek Bikiri negar malkoak erortzen zitzaion bitartean.
- Ni, Sheldon naiz, eta bigarren galderari erantzuten nagoen bitartean, zuek, denbora galtzen egongo zarete baina beranduegi izan baino lehen, bide horretatik jarraitzen baduzue zuen etxera itzultzea lortuko duzue. -esan zuen Sheldonek.
- Mila esker Sheldon. -esan zuen Lidek. Bikik eta Lidek, Sheldonek esandako bidea jarraitu zuten.

Oinez zeuden bitartean, tren-geltokia aurkitu zuten baina tren geltokian ez zegoen ezer. Biki, lurlean jarri zen eta inguruari begiradak egiten zion bitartean...

- Mapa bat!!! -esan zuen Bikik.

Biki, korrika hasi zen mapa hartzeko. Bikik, mapa hartu ondoren, mapa zabaltu zuen, Lidek berriz, papel ziztrin bat zela pentsatu zuen.

Biki, mapa jarraitzen hasi zen. Bat-baten, ibai bat agertu zen eta mapak esaten zuen ibaia zeharkatzeko. Lidek, ez zuen nahi ibai zeharkatu baina Bikik etxera itzuli nahi zuen eta ibaia pasatzea zen modu egokiena. Bikik, hanka bat sartu zuen baina erori egin zen. Ibaiak sekulako sakontasuna zuen, beraz, igerian joan behar izan ziren.

Igerian zeuden bitartean, Lidek ezin zuen jarraitu, ito egin behar zen baina bat-batean Bikik eskutik heldu zion eta ibai ertzera heltzea lortu zuten. Biki, momentu hartan, konturatu zen, ze garrantzitsua zen lagunak edukitzea. Lidek eta Bikik, maparen bidea jarraitu zuten eta ustekabean bien begietan, tren geltoki bat aurkitu zuten. Tren geltokirantz abiatu ziren, bertan, tren bat zegoen, lehengo trena ematen zuen. Biki eta Lide trenera igo ziren eta biak pozik Euskal Herriruntz joan ziren.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR DADILA TRENEKO PLAZAN.

Elkur